

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN LEGE ESTATUSA

Xabier Iriondo

Abokatua

I.- SARRERA

II.- HIZKUNTZA ESKUBIDEAK
ORDENAMENDU JURIDIKO
ESTATALEN MENPE:
HIZKUNTZA ESKUBIDEAK
EPAINIAR
ESTATUAN

III.- HIZKUNTZA
NORMALKUNTZA EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO
PUBLIKOETAN

IV.- HIZKUNTZA ESKUBIDEAK
NAZIOARTEKO
ORDENAMENDUETAN:HIZKU
NTZA ESKUBIDEEN
BABESERAKO
TESTU NAGUSIAK ETA
JURISPRUDENTZIA

I.- SARRERA

Irakurgai hau Hizkuntza Zuzenbidea deituriko disziplinaren baitan kokatzen da. Hizkuntza Zuzenbidea disziplina sasilegal bat da, beste batzuren artean, Soziolinguistika, Filologia, Filosofia eta Zuzenbideko kategoriak barneratzen dituen disziplina meta juridikoa.

Azalpen honetan hizkuntza eta eskubideak elkartzen ditugu. Esan beharrik ez dago bi kategoria hauek elkarri loturik egoteaz gain, politikoki sensitiberatasun handikoak direla eta botere esturturekin harreman estua dutela.

Gaur egun oraindik hizkuntza eskubideak ez daude guztiz zehazturik munduan, azken finean, hizkuntza eskubideek aplikatzen diren lurraldeko botereekin daukaten lotura estua baitute.

Argi dagoena zera da, hizkuntza eskubideen definizio eta argitasun kontzeptuala zorroztea premiazkoa dela, izan ere, definizio ezaren ondorioz asko dira sortzen diren justizia-ezak munduan zehar.

Tove Skutnabb Kangasen Linguistic human rights liburuak agerian jartzen du hizkuntza eskubide eza oso arrunta dela gaur egungo munduan, nahiz eta nabaria den, halaber, azken boladan hizkuntza eskubide-

en inguruan sortu den ardura nazioartean.

Arazoa modu honetan ager daiteke: hizkuntza eskubideak definitzearen arazoa gutxiengo linguistikoei arduratzen dien gaia da. Izan ere, gehiengo linguistikoek hizkuntza eskubide guztiak dituzte bermatuak, dauzkaten eskubide horiek zeintzuk diren eta nola definitzen diren kontuan izan gabe.

Gutxiengo linguistiko gehienek ez dituzte hizkuntza eskubide hauek bermaturik. Munduan dauden 6.000-7.000 hizkuntzetatik bakan batzuk soilik dauzkate babesturik hizkuntza eskubideak.

Oro har, eta Europari so eginez, esan daiteke Europan ez dagoela gutxiengo linguistikorik gabeko estaturik, eta noski, Afrikan, Amerikan, Asian eta Ozeanian hizkuntza aniztasuna da araua, eta salbuespena homogeneitate linguistikoa.

Noski, hizkuntza gutxituen artean desberdintasunak nabariak dira, hauen artean kokatzen baitira estatus ofiziala onarturik duten zenbait hizkuntza –euskara beste batzuren artean- eta inongo estatus ofizialik izan ez eta desagertzearen dauden hizkuntzak ere –hala nola 70 urtetik gorako bost hiztun besterik ez dituen Zápara hizkuntza, Amazoniakoa-.

Arazoa beraz ez da bakarra, ez eta berdina ere kasu guztietan, baina arazoak oinarritzko hizkuntza eskubideen definizioa egitera bultzatzen gaitu premiaz.

Sarrera moduko hau amaitzeko, bi ideia soil ematera ausartuko naiz, agian ikastaro honen eztabaidarako balio izan dezaketenak:

1.- Hizkuntza eskubideak bitan bana ditzakegu: batetik oinarritzko hizkuntza eskubideak edo *giza-hizkuntza-eskubideak*, edonon eta edonori babestu beharrekoak; eta bestetik *hizkuntza eskubide arruntak*, gune konkretu batean hizkuntza zehatz bateko hiztunei aitortu beharrekoak.

2.- Lehen mailan, edo giza-hizkuntza-eskubideen mailan, kokatzen diren hizkuntza eskubideak zera suposatzen dute:

a) **Maila indibidualean:** Hizkuntza propioa ikasteko eskubidea, hizkuntza propioan oinarritzko hezkuntza jasotzeko eskubidea, eta maila pribatuan eta zenbait gune publikotan hizkuntza erabiltzeko eskubidea.

b) **Maila kolektiboan:** Gutxienekoak izateko, hots, bizirauteko duen eskubidea. Alegia, hizkuntza garatzeko, eskolak antolatzeko, ordezkari politikoak edukitzeko eta gai kulturaletan autonomia minimo bat izateko eskubidea.

Hauek lirateke oinarritzko hizkuntza eskubideak, edonon eta edonori aitortu beharrekoak, alegia, giza eskubide linguistikoak, inongo boterekin inolaz murriztu ezin ditzakeen eskubideak. Azken finean, eskubide minimo hauek babesten ez badira beste giza eskubide batzuk, beraiekin loturikoak, ere ukatzen baitira, hala nola, babes judizial efektiboa izateko

Arazoa modu honetan ager daiteke: hizkuntza eskubideak definitzearen arazoa gutxiengo linguistikoei arduratzen dien gaia da. Izan ere, gehiengo linguistikoek hizkuntza eskubide guztiak dituzte bermatuak, dauzkaten eskubide horiek zeintzuk diren eta nola definitzen diren kontuan izan gabe.

Beste plano batera pasako gara orain; lehenago aipatu dugun moduan, badira bi kategoria hizkuntza eskubideetan. Giza-hizkuntza-eskubideak eta hizkuntza-eskubide arruntak. Elkar loturik daude baina desberdinketa egin nahi nuke.

eskubidea edo epaiketa ulergarria izateko eskubidea, hezkuntza eskubidea edo adierazpen askatasuna.

Azken finean, hizkuntza batek bizirauteko behar dituen gutxieneko eskubideez ari gara. Gezurra badirudi ere, minimo hauek ez dira babes-ten. Premiazko egoera hori ikus dezazuen hona datu bat: Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsaleko Jarraipen Batzordeak martxoan UNESCOri aurkezturiko txostenean dionaren arabera, 25 hizkuntza desagertzen dira urtero eta datozen urteetan munduko hizkuntza guz- tien ehuneko 80a desagertu daiteke.

II.- HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ORDENAMENDU JURIDIKO ESTATALEN MENPE: HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ESPAINIAKO ESTATUAN.

Hizkuntza eskubideen aferan zera gertatzen da: finean, hizkuntza esku- bide horiek bermatu behar dituztenak gehiago linguistikoko partaideak direla, alegia, gobernuak dira hizkuntza eskubideak zeintzuk diren esan eta babestu behar dituztenak eta nazioarteko zein estatu-eraketa politikoa zein den ezagutuz, argi geratzen da normalean gutxiengoetako (minorías) partaideek ez dutela izaten ordezkariak parekidea boterean. Adibidez, nazioartean estatuak izaten dira ordezkariak, Europako Bata- sunean ere bai, eta ondorioz, euskaldunak, kurdoak, igituek, bretoiek... beraien estatuko boterean borondatearen arabera izango dituzte babes- tuak nazioartean hizkuntza eskubideak.

Eta estatu-eraketa? Estatu-eraketa beste maila batean bada ere, gauza ber- tsua gertatzen da. Gehiengoetako (mayoría) ordezkariak dira Konstitu- zioak zein honen garapenerako arauak egiten dituztenak, eta ondorioz hauen sensibilizazio mailaren arabera izango dituzte gutxiengoek erres- petatuak hizkuntza eskubideak.

Zeintzuk dira hizkuntza eskubideak Espainiako Estatuan?

Beste plano batera pasako gara orain; lehenago aipatu dugun moduan, badira bi kategoria hizkuntza eskubideetan. Giza-hizkuntza- eskubideak eta hizkuntza-eskubide arruntak. Elkar loturik daude baina desberdinketa egin nahi nuke. Esan dugu giza-hizkuntza-eskubideek, beste giza-eskubideen antzera ez luketela ordenamendu juridiko estatal baten gora-beheren menpe egon beharrik. Horiek, bizitza eskubidea, tra- tu txarrak ez jasotzeko eskubidea edo berdintasun eskubidea bezala, edo- non egon beharko lukete ezagutuak, edonon. Edonork dituen eskubide- ak dira, murriztu ezinak, gutxitu ezinak, minimoak alegia.

Orain beste hizkuntza eskubide batzuei buruz arituko gara, alegia, minimo horiez gain, lurralde konkretu batean hizkuntza konkretu batek ezagutua daukan estatusaren arabera bermatzen diren eskubideak. Fun- tsean, hizkuntza ofizial bat baino gehiago dagoen lurralde batean, hirita- rren hizkuntza aukeraketa librea bermatzearren botereak oinarri juridi-

koak jarri beharko lituzkete, alegia, hizkuntza ofizial bat baino gehiago dagoen lurralde batean botereek hiritarren autodeterminazio linguistikoa bermatu beharko lukete, inongo diskriminaziorik gabe maila pribatu zein publikoan.

Zein da gaur egungo egoera Espaniako Estatuan?

Bada, Espainiako Estatuan Konstituzioko 3. artikulua inguruan sustraitzen da Eleaniztasuna eta ondorioz Hizkuntza Eskubideak arautzen dituzten printzipio juridikoak.

Zeintzuk dira printzipio hauek eta zeintzuk ondorioztatzen diren Hizkuntza Eskubideak:

Hiru dira Ordenamendu juridikotik ondorioztatu ditzakegun printzipioak:

LEHENA: Hizkuntzen ofizialtasuna

BIGARRENA: Gaztelera ezagutzeko derrigortasuna

HIRUGARRENA: Lurralde bateko berezko hizkuntza

LAUGARRENA: Hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea

1) Hizkuntzen ofizialtasuna

Espainiako Konstituzioko 3,2 artikuluan dator eta bertan dionaren arabera *“las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas comunidades autónomas de acuerdo con sus estatutos”*.

Beraz, gaztelera daukan ofizialtasun berbera daukate beste hizkuntzek, desberdintasun bakar batekin, beste hizkuntzek Elkarte Autonomo konkretu baten lurraldera mugatzen dutela bere ofizialtasuna.

Ofizialtasun honek ondorio juridiko batzuk ditu eta ondorio juridiko horiek Hizkuntza Eskubideetan gauzatzen dira.

Ondorio juridikoak hauek dira:

Batetik, hizkuntza bat ofiziala denean edozein harreman publiko zein pribatutan erabilia izan daiteke inongo oztoporik gabe eta efektibotasun juridiko guztiekin. Ondorioz, ofizialtasunaren lehen ondorio juridikoa hizkuntza aukeratzeko eskubidea da, bai ikuspuntu aktiboan –hizkuntzaren erabilpena- bai ikuspuntu pasiboan –hizkuntza horretan erantzuna jasotzeko eskubidea, baldin eta solaskidea erakunde publiko bat bada-.

Honek, bigarren ondorio juridiko bezala, egitura administratiiboak eta botere publikoak derrigorrez eleaniztasunera egokitu beharra dakar.

Hirugarrena, botere publikoek bereganatzen duten derrigortasuna beraien hezkuntza sistemetan hizkuntza ofizialen hezkuntza bermatzeko (Ikus LOGSEaren 19.a) artikulua edo Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legearen 3,2,g) artikulua).

Hirugarren ondorio juridiko honi buruz Auzitegi Konstituzionalak hau esan digu: *“...el estado en su conjunto (incluidas las comunidades autónomas) tiene el deber constitucional de asegurar el conocimiento tanto del caste-*

Ondorioz, ofizialtasunaren lehen ondorio juridikoa hizkuntza aukeratzeko eskubidea da, bai ikuspuntu aktiboan –hizkuntzaren erabilpena- bai ikuspuntu pasiboan –hizkuntza horretan erantzuna jasotzeko eskubidea, baldin eta solaskidea erakunde publiko bat bada-.

Beraz, ofizialtasunaren hirugarren ondorioa ez litzateke bermatuko soilik hizkuntza ofizialak hezkuntza sistemaren barnean irakaste hutsarekin: irakaskuntza horrek modu eraginkorrean egon beharko du antolatua, horrela, derrigorrezko hezkuntzaren amaieran ikasle guztiek, edozein zentru zein eredu hautatu dutela ere, hizkuntza ofizial guztien ezagutza eduki beharko dute.

llano como de la lengua propia de la comunidad, que tenga carácter de lengua oficial..., ello supone, naturalmente, que ambas lenguas han de ser enseñadas en los centros escolares de la comunidad con la intensidad que permita alcanzar ese objetivo. Y tal deber no deriva sólo del estatuto sino de la misma Constitución (art. 3)".

Auzitegi Konstituzionalak, gainera, ondorengoa gehitzen dio bere epaiari: "...una regulación de los horarios mínimos que no permita una enseñanza eficaz de ambas lenguas oficiales incumpliría este deber constitucional" (STC 88/1983).

Beraz, ofizialtasunaren hirugarren ondorioa ez litzateke bermatuko soilik hizkuntza ofizialak hezkuntza sistemaren barnean irakaste hutsarekin: irakaskuntza horrek **modu eraginkorrean** egon beharko du antolatua, horrela, derrigorrezko hezkuntzaren amaieran ikasle guztiek, edozein zentru zein eredu hautatu dutela ere, hizkuntza ofizial guztien ezagutza eduki beharko dute.

Ofizialtasunaren azken ondorioa hau litzateke: hiritarrek ezin izango luketela administrazioak hizkuntza ofizialetariko bat erabiltzen duenean hizkuntza horren ezagutza-eza argudiatu. Noski, hizkuntza ofizial baten ezagutza-eza ezin argudia daiteke baldin eta administrazioak hizkuntza hori modu eraginkorrean irakatsi badu bere hezkuntza sisteman. Gaztelarekiko, ofizialtasunaren azken efektu hau guztiz bermatua dago, izan ere, gaztelaren hezkuntza eraginkorra aspaldian bermatua dago –eta gainera aspaldian derrigorrezko bilakatu da estatu osoko hezkuntza sisteman-. Baina beste hizkuntza ofizialak duela 18-20 urte inkorporatu zirenez hezkuntza sisteman, hizkuntza ofizial hauen ezagutzak normalkuntza prozesu baten beharra izango du eta normalkuntza prozesu hori gertatzen ez den bitartean ezin sartuko da indarrean ofizialtasunaren azken ondorioa.

Administrazioek, bere hezkuntza sistemaren bitartez, modu eraginkorrean hizkuntza ofizial guztien ezagutza bermatzen dutenean, alegia, hurrengo belaunaldietan, orduan sartuko da indarrean ofizialtasunaren azken ondorioa eta orduan ezingo du inork hizkuntza ofizial baten ezagutza-eza argudiatu administrazioaren aurrean. (Auzia: zenbat denbora behar da gurea bezalako gizarte batean eta gurea bezalako hezkuntza sistema batekin, azken ondorio hau indarrean sar dadin? Psikopedagogok erantzun beharko digute?).

2) Gaztelera ezagutzeko derrigortasuna

Konstituzioak hizkuntza gaietan dauzkan aipamenen artean batek piztu du gure arreta; gaztelaren eta Espainiako beste hizkuntzen ofizialtasunarekin batera, gaztelaren derrigorrezko ezagutza jasotzen duela.

Xedapen hau ez zen aipamenik gabe igaro Konstituzioa onartzeko eztabaidetan. Azkenean bere horretan geratu bazen ere, bazegoen ezagu-

tzaz gain erabilera ere derrigorrezko egin nahi zuenik, bai eta derrigortasuna beste hizkuntza ofizial guztiei zabaldu nahi zionik ere. Hala ere, ez ziren proposamen horiek onartu eta azkenean gaztelera soilik dauka Konstituzioan jasota ezagutzaren derrigortasuna, nahiz eta beste hizkuntza ofizialen erabilera eskubidea ere jasotzen den.

Honek hau esan nahi du:

-Lehenik, Konstituzioak ez duela inposatzen gaztelaren erabilera bi hizkuntza ofizial dauzkaten Autonomia Erkidegoetan, aitzitik, aukerako hizkuntzaren erabilera bermatzen du.

-Bigarrenik, ez da zilegi gaztelaren derrigorrezko ezagutza dela eta, gaztelera eta beste hizkuntza ofizialak ez daudela egoera juridiko berean ondorioztatzea. Izan ere, hezkuntza sistema da hizkuntza baten ezagutza bermatzen duena eta urteetan gaztelera hezkuntza sistemaren barneratua egon delako, eska daiteke orain bere derrigorrezko ezagutza, eskatzen duenak berak bermatu baitu bere ezagutza. Baina beste hizkuntzak ez direnez duela 18-20 urterarte hezkuntza sistemaren barnean egon ezin eska dezakegu bere derrigorrezko ezagutza. Hala ere, beste hizkuntza ofizialen derrigorrezko ezagutza etorkizunera begira atzeratzen den ondorio juridiko bat da; administrazioek hezkuntza sistemaren bitartez modu eraginkorrean beste hizkuntza ofizialen ezagutza bermatzen dutenean, orduan eska ahal izango da beste hizkuntza ofizialen derrigorrezko ezagutza.

Laburtuz, gaztelaren derrigorrezko ezagutza jasotzen duen xedapen konstituzionalak ez du gaztelera beste hizkuntza ofizialen gainetik jartzen maila juridikoan; ez dio beste hizkuntza ofizialek ez duten ondorio juridikorik gehitzen gaztelari.

Hizkuntza ofizial guztiak maila juridiko berdinean daude eta gaztelarak daukan berezitasun bakarra Estatu osoan ofiziala izatearena da, besteak bakoitza lurralde jakin batean direlarik ofizialak; baina ofizialtasun maila daukan lurraldean ofizialtasun berbera daukate gaztelarak zein beste hizkuntzek.

3) Lurralde bateko berezko hizkuntza izatea, edo berezkotasuna (lengua propia)

Zenbait Autonomia Estatutok, erakunde ofizialen berezko hizkuntzaren lehentasunezko erabilera sustatzearren, hizkuntza ofizialetariko baten berezkotasuna azpimarratzen du.

Zentzu honetan, Kataluniako Hizkuntza Politikarako 1/1998 Legeak hau adierazten du bere 2. artikuluan: *“El catalán como lengua propia es la lengua de todas las instituciones de Cataluña, y en especial de la Administración de la Generalidad, de la Administración local, de las corporaciones públicas, de las empresas y servicios públicos, de los medios de comunicación institucionales, de la enseñanza y de la toponimia”*.

Laburtuz, gaztelaren derrigorrezko ezagutza jasotzen duen xedapen konstituzionalak ez du gaztelera beste hizkuntza ofizialen gainetik jartzen maila juridikoan; ez dio beste hizkuntza ofizialek ez duten ondorio juridikorik gehitzen gaztelari.

Administrazioak erabaki dezake berezko hizkuntza izango dela barne harremanetarako eta lanerako hizkuntza arrunta edo orokorra, beti ere administrazioan diharduten langileek ezagutza nahikoa badaukate hizkuntza horretan.

Bide honetatik, katalanek edukia eman diote hizkuntza ofizialetariko batek daukan berezkotasunari, berezko izate horri, erakunde publikoak hizkuntza hori babestera, modu orokorrean erabiltzera eta maila guztietan bere erabilera sustatzera behartuz.

Hala ere, ofizialtasunaren ikuspuntutik, bi hizkuntza ofizial dituen erkidego autonomo batean, berezkotasun printzipioak ezin dezake koofizialtasun printzipioa ahuldu. Neurri batean bi hizkuntzetariko baten berezitasuna azpimarra dezake, eta bere erabilera sustatu eta areagotu, baina ezin dezake koofizialtasuna kaltetu, bi hizkuntza ofizialek baitaukate maila juridiko berbera eta baliotasun juridiko osoa.

Ondorioz, hizkuntzen erabileraren mailan, administrazioek hiritarren aukerako hizkuntza ofizialaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekiko harremanetan, dela berezko hizkuntzarena edo berezkoa ez denarena.

Erantzuna, ordea, bestelakoa izan daiteke administrazioko barne harremanetarako, alegia, administrazioko lan hizkuntzarako: berezkotasun printzipioaren ondorioz, administrazioak erabaki dezake berezko hizkuntza izango dela barne harremanetarako eta lanerako hizkuntza arrunta edo orokorra, beti ere administrazioan diharduten langileek ezagutza nahikoa badaukate hizkuntza horretan.

Administrazioak bere langileak berezko hizkuntzaren ezagutzan gaitu baditu, orduan berezko hizkuntza hori administrazioko barne harremanetako hizkuntza orokor bilaka dezake.

Atal honetan esandakoa laburbilduz, koofizialtasun printzipioak hiritarren aukera eskubidea babesten du administrazioarekiko harremanetan. Berezkotasun printzipioak, ordea, administrazioko barne harremanetan berezko hizkuntzaren lehentasuna edo erabilera orokorra ahalbideratuko luke; are gehiago, berezko hizkuntzaren erabilera eksklusiboa ere ahalbidera lezake berezkotasun printzipioak; hala gertatzen da gaitelarekin estatuko administrazio periferikoan 4/1999 Legearen 36,1 artikularen ondorioz eta hala gerta liteke, baina alderantziz, Elkarte Autonomoetako administrazioetan.

4) Hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea

Azaldutako sistemaren azken puntua hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea da. Berebiziko garrantzia dauka printzipio edo eskubide honek oinarritzko eskubideetan.

Pentsa dezagun edonork bere aukerako hizkuntza ofiziala erabiltzeko daukan eskubide subjektiboan une batez. Eskubide hau oinarritzko eskubide bat da, inolaz ere ezaba ezin daiteken eskubidea, erabiltze hutsarekin agortzen ez dena. Aukerako hizkuntzan erantzuna jasotzeko eskubidea barneratzen du bere baitan.

Baina nola uztar daitezke komunitate helebidunetan hizkuntzagatik

diskriminatua ez izateko eskubidea eta zenbait hiritarrek hizkuntza ofizialeriko baten ezagutza soilik izatea?

Hor dago gakoa, alegia, errealitate soziolinguistikoan. Errealitate soziolinguistikoak hiritarren hizkuntza eskubideak murriz ditzake hizkuntza eskubide horiek erabili nahi diren guneko soziolinguistikoaren arabera. Ez da berdina eskubide horiek euskaldunen indizea % 10 den udalerri batean aplikatzen saiatzea edo % 60 den udalerri batean. Beraz, gure errealitatearen egoera soziolinguistikoa kontuan hartu beharra dago hizkuntza eskubideak eta hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea uztartzerakoan.

III.- HIZKUNTZA NORMALKUNTZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN

1.- Marko juridikoa:

Euskal Autonomia Erkidegoan normalkuntza linguistikoaz hitzegiterakoan abiapuntua, ezin bestean, Espainiako Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan jarri behar dugu. Bi testu juridiko hauek Bloque de Constitucionalidad delakoa osatzen dute eta beraien gain eratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko eraketa linguistiko osoa, koofizialtasun sistema bezala ezagutzen duguna eta arestian aipaturikoa.

Espainiako Konstituzioko 3. artikuluko 2. ataletik abiatuta Espainiako Estatuko koofizialtasun sistema eratzen da. Artikulu honek honela dio: "las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas comunidades autónomas de acuerdo con sus estatutos".

Espainiar Konstituzioak ez du, ordea, beste hizkuntza ofizial horiek zeintzuk izan daitezkeen zerrendatzen; Autonomia Estatutoek zehaztuko dute hori.

Hala, Euskadiko Autonomia Estatutoak (6. Art.), Kataluniakoak (3. Art.), Galiziakoak (5. Art.), Valentziakoak (7. Art.), Balear Uharteetakoak (3. Art.) eta Nafarroako Amejoramentuko Legeak (9. Art.), Espainiako Konstituzioko aukeraz baliatuz, koofizialtasuna ezarri zuten beraien autonomia erkidegoetan.

Koofizialtasun sistemak, arestian esan dugun moduan, ofizialtasun bikoitza dakar, estatus juridiko berdintasuna eta eraentza juridikoen parekotasuna hizkuntza koofizial biekiko lurralde konkretu batetan. Ez dakar gaztelerarentzako eraentza juridiko berezirik edo maila altuagokorik; gazteleraren koofizialtasuna estatu osora zabalduta izanagatik –askok nahi izan duten moduan– koofizialtasunak hizkuntza koofizialen tratua berbera suposatzen du, maila juridiko berbera.

Koofizialtasunaren beste atal garrantzitsua, eta maiz ulertu gabea

Errealitate soziolinguistikoak hiritarren hizkuntza eskubideak murriz ditzake hizkuntza eskubide horiek erabili nahi diren guneko soziolinguistikoaren arabera. Ez da berdina eskubide horiek euskaldunen indizea % 10 den udalerri batean aplikatzen saiatzea edo % 60 den udalerri batean. Beraz, gure errealitatearen egoera soziolinguistikoa kontuan hartu beharra dago hizkuntza eskubideak eta hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea uztartzerakoan.

"...la consecuente cooficialidad lo es con respecto a todos los poderes públicos radicados en el territorio autonómico, sin exclusión de los órganos dependientes de la administración central y de otras instituciones estatales en sentido estricto, siendo por tanto el criterio delimitador de la oficialidad del castellano y de la cooficialidad de otras lenguas españolas el territorio, independientemente del carácter estatal, autonómico o local de los distintos poderes públicos".

edo aplikatu gabea, honako hau da: koofizialtasuna elkarte autonomo osora zabaltzen dela, alegia, elkarte autonomo bateko lurraldean dauden botere publiko guztiei zaiela aplikagarri. Ez da soilik autonomia elkarte horren menpeko diren administrazio edo botere publikoei aplikagarri zaien koofizialtasuna, beste administrazio publiko guztiei eta baita botere publiko guztiei aplikagarri zaien koofizialtasuna da -botere judiziala barne-, alegia, lurralde konkretu batean dauden botere publiko guztiei. Laburbilduz, koofizialtasuna elkarte autonomoan dauden botere publikoei zaie aplikagarri ez elkarte autonomoko botere publikoei.

Zentzu honetan aipagarria da auzitegi konstituzionalaren 82/86 epaia, bere 2. oinarri juridikoan hau esaten duena: *"...la consecuente cooficialidad lo es con respecto a todos los poderes públicos radicados en el territorio autonómico, sin exclusión de los órganos dependientes de la administración central y de otras instituciones estatales en sentido estricto, siendo por tanto el criterio delimitador de la oficialidad del castellano y de la cooficialidad de otras lenguas españolas el territorio, independientemente del carácter estatal, autonómico o local de los distintos poderes públicos"*.

Beste aipamen konstituzional batzuk alde batera utziz -hala nola konstituzioak helburu bezala hartzen duen hizkuntza guztien babesa, edo komunikazio iturriek errespetatu beharreko eleaniztasunaren aipamena etab...-ikus dezagun, 3. artikuluko koofizialtasun printzipiotik abiatuz, zeintzuk izan diren Euskal Autonomia Erkidegoan koofizialtasun horren garapenerako martxan jarri diren arau juridikoak.

Onarturiko arategi mordo aipatu aurretik, azpimarratu behar da Elkarte Autonomoko botereek dutela koofizialtasunaren norainokoa zehazteko eskumena. Alegia, koofizialtasunaren edukia praktikan jartzeko eskumena administrazioetariko bakoitzaren esku badago ere, Elkarte Autonomoko botereak izango dira koofizialtasunaren edukia zein den zehaztuko dutenak. Administrazio bakoitzak koofizialtasun horren edukira egokitzeko neurri zehatzak onartuko ditu, baina soilik horiek, Euskal Autonomia Erkidegoko botereak erabakiko baitu koofizialtasunak zer suposatzen duen eta zein eduki daukan.

Adibide bat jartzearen, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen Justizia Administrazioan edo bertan dagoen Polizia Nazionalan, Euskal Autonomia Erkidegoak erabakiko du zein den koofizialtasunaren edukia, zer suposatzen duen koofizialtasunak, eta ondoren Justizia Administrazioak berak edo Barne Sailak onartuko ditu bere baitan koofizialtasunera egokitzeko neurri zehatzak. Tamalez, gero aipatuko dugun moduan, Estatuko Administrazioak ez ditu martxan jarri koofizialtasunera egokitzeko neurriak, eta ez dezagun ahantz koofizialtasunera egokitzeko derrigortasun hori Auzitegi Konstituzionalak berak erabaki duela. Estatuko Administrazioak, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza ofizial bakar bat egongo balitz bezala jarraitzen du, legeak eta Konstituzioa bera bortxatuz.

Dagokion eskumenaren baitan Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak arategi zabala onartu dute. Hauek dira koofizialtasun sistemaren eraentza juridikoa osatzen duten arauak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutoaren 6. artikulua:

1. "Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea"
2. "Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte".
3. "Hizkuntza dela eta ez da inor gutxietsiko".

Administrazio Orokorreko Arauak

- Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legea, Euskararen erabilpena arautzekoa.

- Uztailaren 6ko 6/89 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

- 8/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteke herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.

- Ondoren Lege eta Dekretu sektorialak dauzkagu, gutxi gora-behera aipaturiko eskema normalizatzailea sektore ezberdinetan aplikatzen dutenak; hala:

Irakaskuntzako Arauak:

Otsailaren 19ko 2/1993 Legea, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko Kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen kideei buruzkoa.

47/1993 Dekretua, martxoaren 9koa, irakastuetarako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena.

Ertzaintzako Arauak:

Uztailaren 17ko 4/1992 Legea, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa.

Ekainaren 10eko 133/97 Dekretua, Ertzaintzaren euskararen normalizazio prozesua arautzen duena.

170/97 Dekretua, hutsak zuzentzekoa.

Osasun zerbitzuetako Arauak:

8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Osasun Antolamenduarena.

"Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte".

Bi norabidetan funtzionatzen duen eskubidea da, alegia, ez du soilik administrazioarekiko harremanak euskaraz izateko eskubidea aldarrikatzen, baizik eta administrazioaren betebeharra da hiritarrarekiko harremana hiritarraren aukera hizkuntzan mantentzea. Honek administrazioen nahitaezko euskalduntzea suposatzen du.

Aipaturiko arau hauek, koofizialtasunaren eduki orokorra arautzeaz gain (administrazio publiko guztiei aplikagarri zaiena), koofizialtasun horretara egokitzeko neurri zehatzak finkatzen dituzte sektore konkretuetan.

Ondorioz, Elkarte Autonomoan hiritarren eskubideak eta ondoriozko botere publikoen betebeharrak finkatzen dituzten arau hauek dira Elkarte Autonomoko Erregimen Linguistikoa finkatzen dutenak.

Hiritarren eskubideek eta botere publikoen betebeharrak Normal-kuntzarako Oinarrizko Legeak finkatzen dituzte bere lehen atalean. Atal honek dioenaren arabera hiritarren eskubideak hauek dira:

1) Elkarte Autonomoan bere egoitza duen edozein administrazio, erakunde edo entitaterekin idatziz zein ahoz euskaraz harremanetan jartzeko eskubidea.

2) Hezkuntza bi hizkuntzatan jasotzeko eskubidea.

3) Egunkariak, irrati-telebista saioak eta beste edozein komunikabide medioetako saioak euskaraz jasotzeko eskubidea.

4) Aktibitate profesionalak, laboralak, politikoak zein sindikalak euskaraz egikaritzeko eskubidea.

5) Edozein bileratan euskaraz aritzeko eskubidea.

Ondorioz, eta eskubide hauek eragingarriak izan daitezten botere publikoei dagokie eskubide hauek bermatzeko beharrezko neurriak martxan jartzea.

Laburtuz, koofizialtasunaren ondorio esanguratsuena honela defini dezakegu: hiritar orok dauka botere publiko guztiekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea, baliotasun eta eraginkortasun juridiko osoz, ezin daitekeelarik inolako itzulpenik eskatu; halaber, euskarak derrigorrez hezkuntza sisteman barneraturik egon beharko du.

2.- Euskara Administrazio publikoan:

Euskararen erabilpena arautzeko oinarrizko legearen 6. artikulua hiritarren eskubidea aldarrikatzen du bere aukerako hizkuntzan –euskara zein gaztelera- administrazioarekin harremana izateko eta administrazioarengandik zerbitzua hizkuntza horretan jasotzeko. Beraz, bi norabidetan funtzionatzen duen eskubidea da, alegia, ez du soilik administrazioarekiko harremanak euskaraz izateko eskubidea aldarrikatzen, baizik eta administrazioaren betebeharra da hiritarrarekiko harremana hiritarraren aukera hizkuntzan mantentzea. Honek administrazioen nahitaezko euskalduntzea suposatzen du.

Auzitegi Konstituzionalak honi buruz zera esan du: "en todo caso no se impone un deber individualizado de conocimiento del euskara, ya que el deber correspondiente se predica de las administraciones públicas, que son las que deberán proveer los medios necesarios para la efectividad de tal derecho".

Koofizialtasuna, beraz, ez da pasiboa, aktiboa baizik eta ondorioz administrazioei dagokie eskubideen bermerako beharrezkoak diren neurriak martxan jartzea. Hori izan da, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak azken 20 urteetan onarturiko arautegiaren helburua, bere egitura eta pertsonala Euskararen Erabilpena Arautzeke Legeak dioenera egokitzea.

Legeko zioen azalpenean jasotzen denez, xedea “administrazio elebiduna eraikitzeke betebeharrak utziezina” da. Hori lortzeko, lanpostu bakoitzari hizkuntza eskakizun bat ezartzen zaio eta horren bidez lanpostu hori betetzeko eta dagokion lana burutzeko nolako hizkuntza gaitasuna behar den zehazten da —batetik laurako aldagaiekin—. Horretaz gain, lanpostu bakoitzak derrigortasun data izan dezake eta data hori betetzen denean soilik joko da hizkuntza eskakizuna nahitaezko lanpostu hori bete ahal izateko. Horren ondorioz, derrigortasuna ezartzen ez den bitartean, ezarritako hizkuntza eskakizunak lanpostua hornitzeko edota kanpoko norbait aukeratzeko garaian euskara jakiteari merezimen du gisa egingo zaion balorazioa zehazteko bakarrik balioko du.

Erraz ikus daiteke arazoaren gakoak ez dela soilik lanpostuaren hizkuntza eskakizuna zein den jakitea (1. eskakizunak ahozko eta idatzizko ulermena funtsezko mailan menperatzea eskatzen du; 2. eskakizunak ahozko ulermena ongi menperatzea dakar; 3. eskakizunak ahozko eta idatzizko ulermen ona izatea galdatzen du; eta azkenik, 4. eskakizunak hizkuntza gaitasunaren maila espezializatua eskatzen du eta normalean unibertsitateko lizentziatuei dagokie); horretaz gain, garrantzi berezia dauka derrigortasun data, horixe baita lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizuna galdatzen has daitekeen unea.

Administrazio bakoitzari dagokio bere lanpostuen hizkuntza betebeharrak finkatzea —Eusko Legebiltzarrak onartutako irizpideak betez—, eta hori lanpostuen zerrenda onartzean egin ohi da. Zerrenda hori Euskal Autonomia Erkidegoan prestatzerakoan, lanpostuaren izenarekin batera, zein talde, kidego edo eskalakoa den, izango duen dedikazio erregimena, hizkuntza eskakizuna eta, baldin badauka, derrigortasun data adierazten dira.

Pentsatzekoa da antzeko lanpostuetan hizkuntza eskakizun berdina izango dela administrazio publikoetan, baina derrigorrezko data errealtate soziolinguistikoa kontuan hartuz galdatuko da, eta hori administrazio bakoitzaren lurralde eremuari dagokion derrigortasun indizetik aterako da; aipatu indizea kalkulatzeko euskal hiztunen kopurua eta elebidun hartzaileen erdia gehitzen dira. Horrela, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldako datu ofizialen arabera %30,9a badira euskal hiztunak eta %16a elebidun pasiboak, Erkidegoko erakundeetan derrigortasun indizea $30,9 + (16/2) = 38,9$ izango litzateke; hots, gaur egun indarrean dagoen lanpostuen zerrendan, 1996ko erroldako datuak aplikatuz, Eusko Jaurlaritzako funtzionarioen %38,9ak 2002. urteko abenduaren 31 baino lehenagoko derrigortasun data izango du, egun horretan

Legeko zioen azalpenean jasotzen denez, xedea “administrazio elebiduna eraikitzeke betebeharrak utziezina” da. Hori lortzeko, lanpostu bakoitzari hizkuntza eskakizun bat ezartzen zaio eta horren bidez lanpostu hori betetzeko eta dagokion lana burutzeko nolako hizkuntza gaitasuna behar den zehazten da —batetik laurako aldagaiekin—.

Publikoarekin harreman zuzena duten lanpostuek eta elebidun gisa kalifikatutako unitateetako lanpostuek lehentasuna izango dute. Azken hauetan sartzen dira bereziki gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa dutenak.

bukatzen baita plangintzaren bigarren epealdia.

Lanpostuei derrigortasuna ezartzeko irizpideek administrazio maila ezberdinei tratamendu zuzen eta proportzionala ematea dute helburu, horiek zein kide, eskala edo titulazio taldetakoak diren bereziki gabe. Hala ere, publikoarekin harreman zuzena duten lanpostuek eta elebidun gisa kalifikatutako unitateetako lanpostuek lehentasuna izango dute. Azken hauetan sartzen dira bereziki gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa dutenak. Ez da ahaztu behar Autonomia Erkidego osoan gaztelaniadun elebakarrak 30 urtetik beherako biztanleen erdia baino gutxiago direla, eta 15etik beherako en artean portzentaia %20ra murrizten dela.

Euskal Administrazio Publikoetan —funtsean erakunde autonomiko, foral eta lokaletan, bakoitzaren erakunde autonomoak barne direla— egindako hizkuntza plangintzaren balantzea datuetan azalduz gero —1999ko apirilaren 6ra egokituta—, ondorengo daukagu: 29.390 lanpostutatik 10.343ri (%35,19) ezarri zaiola derrigortasun data eta horietatik 1.339 funtzionarioek (%12,94) ez duela hizkuntza eskakizunik egiaztatu, nahiz eta adierazi beharra dagoen 2.014 kasutan (%19,47) derrigortasuna hutsik dauden lanpostuei eta normalki bitarteko langileek betetzen dituztenei ezarri zaiola eta, azkenik, 1.054 lanposturi (%10,19) ez zaiola derrigortasunik eskatu funtzionarioek 45 urte baino gehiago izateagatik eta arrazoi horregatik hizkuntza eskakizunen derrigortasunaren erregimen orokorra betetzetik salbuetsita geratu direla.

Gainera, gogora dezagun plangintza orokor honek ez dituela hartzen osasun sektorea (21.685), Ertzaintza (7.300) eta irakaskuntzako langileak (18.000), euren izaera berezia eta ezaugarriak direla eta. Azken kasuotan, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretu bidez, ikastetxe publikoetako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntza/OHOk eta Irakaskuntza Ertaineko irakaspostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak zehazteko irizpideak nahiz euren salbuespen araubidea finkatzen dira. Aipaturiko Dekretuan, bi hizkuntza eskakizun soilik dituen sistema taxutzen da: honetara, 1. hizkuntza eskakizuna euskarako edo euskaraz klaserik ematen ez duten irakasleei ezartzen zaie eta gurasoekin zein ikasleekin euskaraz komunikatzeko gaitasuna ematen die; 2. hizkuntza eskakizunarekin, ordea, klaseak euskaraz eman ditzakete. Bestalde, uztailearen 28ko 197/1998 Dekretuko 26. artikulua irakasleen hizkuntza gaitasunari buruzkoa da eta irakasle berriek erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan klaseak emateko gai izan behar dutela xedatzen du. Irakaskuntzako sindikatuak ordezkoen zerrendei ere printzipio hori aplikatzearen alde azaldu ziren; hala ere, UGT sindikatuak helegitea aurkeztu dio aipatu 26. artikuluari, bere ustez "euskaraz irakasteko gaitasuna ematen duen hizkuntza eskakizuna ez duten izangaiak irakaskuntzako funtzio publikoan sartzea galerazten baitu". Gaia kokatuz, kontuan izan behar da 1998/1999 ikasturtean eskolara joaten hasi diren hiru urteko 15.674 haurren arteko

%87,2ak D eta B ereduak aukeratu dituela (nagusiki edo zati batean euskaraz ematen den irakaskuntza), hau da, %12,8ak bakarrik aukeratu due-la A eredu (euskara ikasgai gisa duen gaztelaniazko hezkuntza), azken eredu hau %11k bakarrik aukeratu duelarik 1999/2000 ikasturtean.

Ertzaintzari gagozkiola, 1998ko otsailaren 24ko Dekretuak arlo horren hizkuntza normalkuntzarako prozesua arautzen du, eta bere helburua ertzainak batik bat euskararen ahozko ulermenean trebatzea da. Kontuan izan behar da ertzainen hautaketan formazio ikastaroetarako aukera izateko garaian ez zaiela euskara mailarik eskatu, nahiz eta azkeneko promozioek aipatu ikastaroetan gutxieneko hizkuntza trebakuntza jaso duten. Etorkizunean derrigortasun datak urtero ezarriko dira, oraindik onartzeke dagoen lanpostuen zerrendan dagozkion aldaketak eginez.

Azkenik, osasun sektoreko plangintza prestatze prozesu geldoan dago oraindik. Bitartean, 1997ko ekainaren 26ko Euskal Osasungintzaren Antolaketari buruzkoak, Osakidetza lanpostuak hornitu eta langileak hautatzeko prozesuetan funtzio publikoaren legerian aurreikusitako arauak aplikatuko dituela xedatzen du euskararen ezagutza merezimen-du gisa baloratzeko, eta Osakidetza langileak euskaldundu eta alfabetatzeko ikastaroetarako deialdia egiten du. Gainerakoan, euskal hiztunek gehiengo nabarmena osatzen duten herrietan eta osasun zerbitzuak gaztelaniaz eskaintzen direnean sortzen diren arazoak ekidin behar dira lehenbailehen, baita pediatriako zerbitzuetan gertatzen direnak ere, horietaz baliatzen diren haur asko euskal hiztun elebakarrak baitira.

Bestalde, sozietate publikoek eta Autonomia Erkidegoko Adminis-trazio Publikoen menpe dauden zuzenbide pribatuko erakunde publiko-ek, zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, erabiltzailearekiko harreman zuzena dakarten zerbitzuetan euskara eta gaztelaniaren era-bilera bermatu beharko dituzte. Halaber, kontratazioen alorrean, erabil-tzailearekin harreman zuzena duten eta hirugarren batzuek gauzatzen dituzten zerbitzu publikoak, herritarrei dagokion administrazioari eska dakioken hizkuntza baldintza berberetan emango zaizkiela bermatu beharra dago.

Euskal Herrian kokatuta dagoen Estatuko Administrazioari dago-kionez, bertan ez da oraindik inolako hizkuntza plangintzarik jarri mar-txan erkidegoko berezko hizkuntza erabili nahi dutenen hizkuntza esku-bideak bermatu ahal izateko, Administrazio Publikoetako Ministerioak onartutako agindu batek (1990eko uztailaren 20koan) lanpostuen horni-keta prozesuan erkidegoko berezko hizkuntzaren balorazioa bideratzen badu ere.

Bukaera gisa, aipamen berezia merezi du Justizia Administrazioak, tamalez, gaur egun ezinezkoa baita epaile eta magistratuei euskararen ezagutza lanpostuak hornitzeko garaian galdatzea, ez eta oraingoz behintzat Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileei ere (ofi-zial, administrari laguntzaile, agente judicial...). Azken gai honi dagokio-

Ertzaintzari gagozkiola, 1998ko otsailaren 24ko Dekretuak arlo horren hizkuntza normalkuntzarako prozesua arautzen du, eta bere helburua ertzainak batik bat euskararen ahozko ulermenean trebatzea da. Kontuan izan behar da ertzainen hautaketan formazio ikastaroetarako aukera izateko garaian ez zaiela euskara mailarik eskatu.

Badirudi helburu horiek nekez lor daitezkeela ez bada Justizia Administrazioiko kide nazionaletakoa lanpostu batzuek hornitzerakoan —gutxienez— euskaraz jakitea eskatzea ahalbideratuko duen bide juridikoren bat ezartzen.

nez, etorkizunean eman beharko du bere epaia Konstituzio Auzitegiak, izan ere, Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 31ko 63/1998 Dekretuak, beste helburu batzuren artean, "hizkuntza koofizialtasuna bermatu" nahi baitzuen eta plantilak osatzeko irizpide gisa lanpostu jakin batzuetan euskararen ezagupena eskatzea aurreikusten baitzuen —Eusko Jaurlaritzari transferitu berri zaion pertsonal honen erabateko adostasun sindikalarekin— eta Dekretu horri Gobernu zentralak, eskuduntza gatazkaren bitartez, kontra egin baitzion.

Hala ere, datu baikor gisa azpimarratu beharra dago Botere Judizialaren Kontseilu Orokorren Plenoak, Euskadiko Justizia Administrazioiko ofizial, administrari laguntzaile eta agenteen kideetako plantila organikoak zehazteko Aginduaren Egitasmoari buruz egindako txostenean, baikor baloratu duela Eusko Jaurlaritzak bidalitako plantila proposamena, hau adieraziz: "zenbait lanpostutarako eskakizun eta baldintza teknikoak zehazten dituen neurrian, Justiziako Liburu Zurian jasotzen diren printzipioen arabera kotzat eta horiekiko arrazoizkotzat jo behar da". Orobat, Kontseiluaren Plenoak, 1998ko uztailaren 27ko txosten horretan bertan adierazten du Botere Judizialeko gobernu organuak behin eta berriz defendatu duela "jurisdikzio organuen aurrean Autonomia Erkegoko hizkuntza erabiltzeko eskubidea, honela Justizia Administrazioaren esparruan hizkuntzaren normalkuntzaren alde eginez, eta eskubide horren edukiak batik bat herritarrak aukeratutako hizkuntza ofizialean komunikatzeko eta erantzuna jasotzeko eskubidearen eraginkortasunari begira egon behar duela, baita prozesua, bertan parte hartzen duten subjektuen aniztasunaren eta hizkuntza jarreraren arabera, justiziaren helburuetarako egokiena den hizkuntzan garatzeari ere". Beraz, badirudi helburu horiek nekez lor daitezkeela ez bada Justizia Administrazioiko kide nazionaletakoa lanpostu batzuek hornitzerakoan —gutxienez— euskaraz jakitea eskatzea ahalbideratuko duen bide juridikoren bat ezartzen. Ez bada hori egiten, zentzuzkoa al da, adibidez, euskal hiztunen %90eko indizea duen eskualde batean Justizia Administrazioak horien hizkuntza eskubideak ez bermatzea? Ez al da zentzuzkoagoa lanpostu horiek hornitzerakoan euskara jakitea galdatzea?

Azkeneko ildo horretatik jarraituz, partzialki bada ere, "Noticiero Jurídico de Aranzadi" delakoan (19. zk., 1999ko ekainaren 10ekoa) azaltzen da Botere Judizialaren Kontseilu Orokorreko Plenoak bertako azterlan eta txostenen batzordeari eskatu diola euskal hiztunen indizea handia den tokietako ordezkari epaile eta magistratuek duten euskararen ezagutza ebaluatzeko sistema bat ezar dezala.

Hizkuntza normalkuntzari buruzko laburpen hau amaitzeko aipatu beharra dago pribatuki betetzen diren funtzio publikoetan, ez sarreran ez eta horniketean ere, ez dela euskara kontuan hartzen —besteak beste, lan horiek betetzen dituztenak notarioak, jabetza eta merkataritza erregistratzaileak, merkataritzako korredoreak, portuetako praktikoak, erregistro

zibileko medikuak eta jabetza industrialeko agenteak dira—. Kasu hone-tan ere, gutziz zentzuzkoa eta arrazoizkoa dirudi gehiengo euskalduna duten zonaldeetan euren harremana euskaraz bideratu nahi dutenen hizkuntza eskubideak bermatzea, erkidego osoan gaztelania darabiltenei bermatzen zaizkien modura.

IV.- HIZKUNTZA ESKUBIDEAK NAZIOARTEKO ORDENAMENDUETAN:HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BABESERAKO TESTU NAGUSIAK ETA JURISPRUDENTZIA

1.-Sarrera

1516an Frantziako Erregearen eta Estatu helvetiarraren artean sinaturiko *Betirako Batasunaren Hitzarmenetik* hasi eta 1996ko ekainean Bartzelonan aurkeztutako *Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalerarte*, asko izan dira Hizkuntza Eskubideekin zerikusia izan duten nazioarteko testu, hitzarmen, deklarazio edo erresoluzioak.

Gutxiengo Linguistikoen babesak eta errekonozimendua nazioartean lehen gerrate mundialaren ondoren hasi zen nabarmena izaten, Nazioen Ligak onarturiko Gutxiengo Hitzarmenen bidez.

Baina Giza Eskubideen babesak 1945. urtetik aurrera izan zuen aurrerakadarik nabarmenena. Hizkuntzarekiko xedapen zehatzak barneratzen zituzten Nazioarteko Hitzarmenak gehiagotuz joan ziren, 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 2. artikulutik hasi eta ondoren egon diren Nazioarteko Itun zein Deklarazioetaraino.

Auzitegien partehartzea ere orduan hasi zen; 1935ean orduko Nazioarteko Justiziaren Auzitegi Iraunkorrak *Albaniako Gutxiengo Inkestolen* kasuan emaniko iritzia izan zen auzitegien lehen partehartzea Hizkuntzen Babes Jurisdikzionalaren bidean.

Honek zera adierazten du: gune jakin batean gertatzen den hizkuntzen arteko elkarbizitzak eta kontaktuak, gatazkak eta desberdintasunak sortzen dituela; hizkuntzen arteko elkarbizitzak, normalean, gutxiengo-gehiengo erlazio batera garamatza eta zuzenbideak ezin dio gatazka horri bizkarra eman.

Hau da atal honen helburua, alegia, zuzenbideak hizkuntzen arteko gatazka horretan nola parte hartu duen ikertzea eta, zehazkiago, auzitegi ezberdinek Hizkuntza Eskubideen arlo horretan noiz eta nola parte hartu duten aztertzea.

Hizkuntza eskubideen babes jurisdikzionalaz hitz egiterakoan, berriro ere arestian aipaturiko puntu nagusia argitu beharrean aurkitzen gara: hizkuntza eskubidea hitzaren beraren esanahia; alegia, hizkuntza eskubideen zabalera, kategoria eta edukia.

Hizkuntza eskubideen babes jurisdikzionalari buruz hitz egiteko ezinbestekoa da babestu beharreko horren edukia zehaztea, eta horreta-

Gune jakin batean gertatzen den hizkuntzen arteko elkarbizitzak eta kontaktuak, gatazkak eta desberdintasunak sortzen dituela; hizkuntzen arteko elkarbizitzak, normalean, gutxiengo-gehiengo erlazio batera garamatza eta zuzenbideak ezin dio gatazka horri bizkarra eman.

UNESCOko MOST programak hizkuntza eskubideei buruzko edo gutxiengo linguistikoei buruzko xedapen edo aipamenak dituzten Konstituzio guztiak bildu ditu, eta MOST programa honek aztertutako 157k Hizkuntza Eskubideei buruzko artikulua dituzte. Hizkuntza Eskubideei buruzko aipamenik ez dutenak edo Konstituziorik ez duten estatuak 26 besterik ez dira.

rako, arestian aipaturiko klasifikazioa ahaztu gabe, atal honetan erabiliko dugun lan eskema hauxe izango da:

-Lehenik, hizkuntzen edo hiztunen babeserako nazioartean dauzkagun xedapenen aipamen laburra, alegia, zeintzuk diren nazioartean hizkuntzen babeserako erabakiak barnatzen dituzten testu nagusiak.

-Ondoren, hizkuntza eskubideen edo hizkuntzarekin zerikusia duten eskubideen inguruan emaniko epai nagusien aipamena eta edukiaren gogoeta laburra egingo dugu, hiru instantzia jurisdikzionaletan zentratuko garelarik bereziki, hauetan emaniko epaien garrantzia eta interesa direla eta. Auzitegiak ondorengoak dira: Giza Eskubideen Europar Auzitegia, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, Kanadako Auzitegi Gorena eta Quebec-eko Auzitegi Probintzialak.

Honela, hizkuntzen zein hiztunen babeserako testuak eta auzitegiek emaniko epaiak aztertuz, hizkuntza eskubidea zer den edo behintzat hizkuntza eskubideen ezaugarriak zeintzuk diren ondorioztatzen saiatuko gara.

Hitzaldi hau amaitzeko Eurokartaren eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren aipamen labur bat egin nahiko nuke, baina denbora tarte mugatua dugula kontuan izanik, agian lan eskema zabalegia ez ote den ari naiz pentsatzen. Beraz, bi nazioarteko hitzarmen hauen aipamena eztabaidarako edo beste momentu baterako utzi beharko ditudala iruditzen zait.

2. Hizkuntza eskubideen babeserako testu nagusiak

Esan bezala, hizkuntza eskubideen zein gutxiengo linguistikoen babeserako nazioarteko dokumentuak ez dira atzo goizeko kontua. Amaitezina izango litzateke hemen hizkuntzarekiko edo gutxiengo linguistikoeikiko nolabaiteko babesa ematen duten nazioarteko itun, hitzarmen zein deklarazio guztiak zerrendatzea.

Baina datu soil batzuk azaldu nahi nituzke: hizkuntzaren babesa eta gutxiengo linguistikoen babesa gai garrantzitsu bilakatu izatearen eredurik nabarmenena, nazioarteko hitzarmenez gain, Estatuetakoa Konstituzioetan aurkitzen dugu.

Hizkuntza eskubideak, maila altuago edo baxuago batean, Estatuetakoa Konstituzio ia guztietan agertzen dira.

UNESCOko MOST programak hizkuntza eskubideei buruzko edo gutxiengo linguistikoei buruzko xedapen edo aipamenak dituzten Konstituzio guztiak bildu ditu, eta MOST programa honek aztertutako 157k Hizkuntza Eskubideei buruzko artikulua dituzte. Hizkuntza Eskubideei buruzko aipamenik ez dutenak edo Konstituziorik ez duten estatuak 26 besterik ez dira.

Datu honek nabarmenki azaltzen du Hizkuntza Eskubideek eta Gutxiengo Linguistikoek zuzenbidearentzat duten garrantzia.

Nazioarteko Itun edo Deklarazioetara jotzen badugu ere datua nabarmena da. Hizkuntza Eskubideei zein Gutxiengo Linguistikoei buruzko xedapenak barneratzen dituzten NAZIOARTEKO Itun edo Hitzarmen nabarmenenak 27 dira; 11 Nazio Batuetako Deklarazioak edo Hitzarmenak dira, OITko Konbenioak barne; 10 Europar Deklarazioak eta Konbenioak dira, Europar Batzordekoak, Europar Batasunekoak, edo OSCEkoak; eta azkenik, lau deklarazio inter-amerikarrak dira, OASen baitan onarturikoak, eta bi afrikarrak, OUAren baitan onarturikoak.

Deklarazio, hitzarmen zein itun hauen zerrenda, emaniko materialeen artean daukazue, beraz ez naiz zerrendatzen hasiko.

Nire ikuspuntutik garrantzitsuenak diren xedapenak soilik aipatuko dizkizuet, batez ere, xedapen horien bitartez pasatuko garelako Nazioarteko Auzitegien jurisprudentzia aztertzeraz.

Bost dira aukeraturiko instrumentuak:

- Giza Eskubideen Babeserako Europar Konbenioa, Europar Batzordeak 1950. urtean onarturikoa, bereziki 6 eta 14 artikulua.
- Europar Elkarteko Ituna, Amsterdamgo Itunak 1997ko urriaren 2an eginiko aldatekin Europar Batasunak onartua, bereziki 149 (126 artikulua zena) eta 151 (128 artikulua zena) artikulua.
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Konbenioa, Nazio Batuek 1966ko abenduaren 16an onarturikoa 2200 (XXI) erresoluzioaren bitartez, bereziki 2, 14, 24, 26 eta 27 artikulua.
- Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso edo Linguistikoetako partaide diren Pertsonen Eskubideen Deklarazioa, Nazio Batuek 1992ko abenduaren 18an onarturikoa 47/135 erresoluzioaren bitartez, bereziki 1, 2 eta 4 artikulua.
- Helsinkiko Gailurreko Erabakiak, OSCEk onarturikoak 1992ko uztailaren 10ean, bereziki 25 eta 37 erabakiak.

Hauek dira nazioartean dauden instrumentuen artean Gutxiengo Linguistikoentzat eta Hizkuntza Eskubideentzat nabarmenenak, nahiz eta nahita utzi dudan Europar Batzordeak 1992ko azaroaren 5ean onarturiko Eurokarta aparte, amaieran aipatzeko.

Testu hauek guztiek babes mota ezberdina ematen dute arrazoi ezberdinengatik, nabarmenki testuen irakurketan ikus dezakezuen bezala, baina nazioartean hizkuntza eskubideen babeserako dagoen interesaren zein garrantziaren eredu dira.

3. Hizkuntzarekin zerikusia duten nazioarteko epai nagusiak

Nazioarteko epai nagusien edukia guztiz aztertzea ezinezkoa litzateke 30 minutuko hitzaldi batean, baina behintzat nazioarteko auzitegien epai batzuen eduki nabarmenena azaltzen saiatuko naiz, horrela babesturikoa

Hizkuntza Eskubideei zein Gutxiengo Linguistikoei buruzko xedapenak barneratzen dituzten NAZIOARTEKO Itun edo Hitzarmen nabarmenenak 27 dira; 11 Nazio Batuetako Deklarazioak edo Hitzarmenak dira, OITko Konbenioak barne; 10 Europar Deklarazioak eta Konbenioak dira, Europar Batzordekoak, Europar Batasunekoak, edo OSCEkoak; eta azkenik, lau deklarazio inter-amerikarrak dira, OASen baitan onarturikoak, eta bi afrikarrak, OUAren baitan onarturikoak.

**Auzitegiaren babesa jaso
nahi badugu,
hizkuntzarekin zerikusia
duen eskubideren baten
urratze bat argudiatu
beharko dugu, hala nola,
Hezkuntza Eskubidea,
Babes Judizial Egokiaren
Eskubidea edo Adierazpen
Askatasuna.**

zer den eta auzitegien partehartzea noiz eman den argitzeko aukera izan dezagun.

3.1. Giza Eskubideen Europar Auzitegia

Giza Eskubideen Europar Kartak ez ditu, tamalez, eskubide linguistikoa zuzenean zerrendatzen. Ostera, Erroman sinaturiko testu honek diskriminazio ezaren printzipioa jasotzen du bere 14. artikuluan. Artikulu honen arabera, Erromako Konbenioak hizkuntza gutxituen zeharkako babesa bermatzen du: Hizkuntza diskriminazioa Erromako Konbenioaren 14. artikulua aurkakoa izango da baldin eta Konbenioak zerrendatzen dituen eskubideetariko baten egikaritza oztopatzen badu.

Beraz, auzitegiaren babesa jaso nahi badugu, hizkuntzarekin zerikusia duen eskubideren baten urratze bat argudiatu beharko dugu, hala nola, Hezkuntza Eskubidea, Babes Judizial Egokiaren Eskubidea edo Adierazpen Askatasuna.

Hezkuntza eskubidearen ildotik etorri da, hain zuzen ere, aipagai izango dugun lehen epaia: *Belgiar Arazo Linguistikoa* deiturikoa.

Epaia honetan auzia hezkuntza eskubidearen eduki linguistikoa zen eta Strasbourg-eko auzitegiak diskriminazio linguistikoa partzialki zegoela onartu zuen; hala ere, epaiaren edukia aztertuz gero bi datu ondoriozta ditzakegu:

a) 14. artikulua babesten duen diskriminazio ezaren eskubidea ez dela bere horretan eta modu bakunean babesten den diskriminazio ezaren eskubidea, baizik eta Konbenioko beste eskubideren batekin loturik dagoen eskubidea dela. Alegia, ez dela hizkuntza eskubideren bat babesten, ez dela oinarrizko hizkuntza eskubide bat existitzen epai honen arabera; dagoena Konbenioko beste eskubideak modu berdinean gozatzeko eskubidea da, inongo diskriminaziorik egon ezin delarik.

b) Estatu batean aurreikus daitezke zenbait neurri, printzipioz diskriminatorioak iruditu daitezkeenak, baina tratu desberdin horrek edo eskubideen nolabaiteko murrizketa horrek bidezko helburu bat jarraitzen badu eta erabilitako bideak proportzionalak badira, ez dago tratu desberdin horri diskriminazio deitzerik, ezta konbenioko eskubideen urraketa ere.

Lehen epai hau oso epai estutzat eta eskubide linguistikoen ikuspegitik oso murriztailetzat hartua izan zen adituen artean.

Auzitegi honen beste epai batean, printzipioz hizkuntza eskubideekin zerikusirik ez zeukan arazo bati buruzkoan, zera esan zuen Giza Eskubideen Europar Auzitegiak: "...hizkuntzari dagokionean, prozesatu orok du ulergarria duen hizkuntza batean auziperatua izateko eskubidea". Tamalez, erabaki honi buruzko azalpenak beste lerro batean ematerakoan, auzitegiak zera eman zuen aditzera, eskubidearen edukia hau dela: akusatua bere aurka dauden karguen, frogen zein lekuko dekla-

razioak ulertzeko eskubidea duela; ez zuen ordea hizkuntza jakin batean auziperatua izateko eskubideaz hitz egiten, prozesua ulertzeko auziperatuaren eskubideaz baizik.

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak edo Giza Eskubideen Europar Batzordeak beste zazpi kasutan izan du aipagai hizkuntza, baina hauetan guztietan auziaren gai zentrala ez zen hizkuntza eskubidea; beste eskubideren batean oinarrituriko auziak ziren. Gehiegi ez luzatzearen, epaien aipamena besterik ez dut egingo, argudiaturiko Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko artikulua eta auziperaturiko gai nagusia parentesi artean azalduko ditudalarik.

Epaiak hauek dira:

Verein Alternatives Lokalradio Bern and Verein Radio Dreyeckland Basel v. Switzerland, 1986ko urriaren 16koa (10 eta 14 artikulua, Hizkuntza Eskubideak eta Media).

Informationsverein Lentia and others v. Austria, 1993ko azaroaren 24koa (10 eta 14 artikulua, Hizkuntza Eskubideak eta Media).

Isop v. Austria, 1962ko martxoaren 8koa (6 eta 14 artikulua, Hizkuntza Eskubideak eta Justizia).

X. and Y. V. Belgium, 1966ko urriaren 7koa (6 eta 14 artikulua, Hizkuntza Eskubideak eta Justizia).

Bideault v. France, 1986ko urriaren 16koa (6 eta 14 artikulua, Hizkuntza Eskubideak eta Justizia).

Fryske Nasjonale Partij and others v. The Netherlands, 1985eko abenduaren 12koa (9, 10 eta 14 artikulua eta 1. Protokoloko 3. artikulua, Hizkuntza Eskubideak eta Administrazioa).

Clerfayt, Legros and others v. Belgium, 1985eko maiatzaren 17koa (9, 10 eta 14. artikulua, Hizkuntza Eskubideak eta Administrazioa)

Stjerna v. Finlandia, 1994ko azaroaren 25koa (Hizkuntza Eskubideak eta Izen Pertsonalak).

Ikusten dugun moduan, lehen epaitegi honetan ez dugu beraz hizkuntza eskubideen babes juridikzionalik aurkituko. Hizkuntza eskubiderik aitortzen ez denez Giza Eskubideen artean, beste babesturiko eskubide baten eduki linguistikoarekin uztartu beharko dugu egin nahi dugun edozein eskabide.

3.2. Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari dagokionean, Europar Elkarteko zuzenbidearen interpretatzaile nagusi den organo juridikzional honentzat hizkuntza ez da auzitegiarentzat zuzenean tratatzeko gaietariko bat. Alegia, hizkuntza elkarteko hitzarmen sortzaileetan Europar Batasunarenak diren eskuduntzetatik kanpo geratzen delarik, auzitegiak ez du hiz-

Ikusten dugun moduan, lehen epaitegi honetan ez dugu beraz hizkuntza eskubideen babes juridikzionalik aurkituko. Hizkuntza eskubiderik aitortzen ez denez Giza Eskubideen artean, beste babesturiko eskubide baten eduki linguistikoarekin uztartu beharko dugu egin nahi dugun edozein eskabide.

Hermann Josef Goerres sententziak dioena hau da: hizkuntza jakin baten erabilera inposa daitekeela estatu edo eskualde batean merkaturatu nahi diren elikagaien etiketetan, beti ere autoritateek erosleentzat ulerkorra den beste hizkuntza baten erabilera baimentzen badute.

kuntzen gaia zuzenean tratatuko, baldin eta elkarteko zuzenbidearen ardatz diren eskubide ekonomikoen bidean gurutzatzen ez bada.

Justizia Auzitegi honen jurisprudentzia aztertuz, zazpi dira arreta bereziz hizkuntza ukitzen duten sententziak eta guztietan hizkuntzak Europar Batasuneko askatasunen bat oztopatzen zuelako edo oztopa zezakeelako izan da tratatua. Pertsonen, kapitalen, merkantzien zein langileen zirkulazio askearen esparruan kokatzen denean pasatzen da hizkuntza Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren intereseko gai izatera.

Zazpi sententzia nagusienak hauek dira:

- 137/84 Arazoa. Belgikako Ministerio publikoa-Robert Heinrich Marie MUTSCH Jn.ren aurka.
- 379/87 Arazoa. Annita GROENNER-Irlandako Irakaskuntza Ministerioaren aurka.
- 369/89 Arazoa. PIAGEME eta beste batzuk-PEETERSen aurka (I).
- 85/94 Arazoa. PIAGEME eta beste batzuk-PEETERSen aurka (II).
- 385/96 Arazoa. Amtsgericht Aachen-Hermann Josef GOERRESen aurka.
- 33/97 Arazoa. COLIM NV-Bigg's Continent Noord NVren aurka.
- 274/96 Arazoa. Pretura Circondariale di Bolzano, Horst Otto BICKEL eta Ulrich FRANZEn aurka.

Hauetariko lau, Piageme I eta II, Hermann Josef Goerres eta Colim NV sententziak, Produktu Elikagaien Etiketaiari buruzkoak dira.

Justizia Auzitegiak Elikagaien Etiketaiari emaniko garrantzia eta ardura handia izan da. Auzitegiaren ustez, Elikagaien Etiketaian hizkuntza baten erabileraren inposaketa Merkantzien Zirkulazio Askearen aurkako neurri bezala har daiteke, konkretuki Efektu Bereko Neurri (MEE) bezala, eta gai horren inguruan lau sententzia eman ditu.

Azken sententzian, 1999ko ekainaren 3ko Colim NV delakoan, bere hasierako planteamenduak matizatu eta hizkuntza baten erabileraren inposaketa onartu du, beti ere zenbait ukanbehar kunplitzen badira.

Funtsean, Piageme I eta II sententzietan esanikoa nolabait leunduz, Hermann Josef Goerres sententziak dioena hau da: hizkuntza jakin baten erabilera inposa daitekeela estatu edo eskualde batean merkaturatu nahi diren elikagaien etiketetan, beti ere autoritateek erosleentzat ulerkorra den beste hizkuntza baten erabilera baimentzen badute.

Colim NV sententziak erdiko bidetik bota du nolabait eta epaiak zera adierazten du: "Inportaturiko produktuetan datozen aipamenen betebeharrak linguistikoen armonizazio osoa egin gabe dagoen bitartean, estatuek barne neurriak har ditzakete, eta hauen arabera, eska dezakete produktuen aipamen horiek merkaturatuak izan behar duten erregioko hizkuntzan edo erregioko kontsumitzaileentzat ulerterraza den beste hizkuntzaren batean erredaktatuak izatea, beti ere barne inposaketa hori aplikatzen bada.

garria bada bai inportaturiko produktuentzat eta bai barne merkatuko produktuentzat, eta beti ere neurria kontsumitzaileen babesaren helburua lortzeko bidean proportzionatua bada. Neurri horiek estatuarentzat derrigorrezkoak diren aipamenei soilik izango zaizkie aplikagarri eta beti ere beste modu batera informazio berdina emateko aukerarik ez badago".

Ikusten den moduan, azken sententziak hizkuntza jakin baten inposaketa alde batera uztearen bidetik jo nahi izan du ahal zuen moduan, hizkuntza jakin baten inposaketari ordenamenduak baimentzen dizkion muga guztiak jarriz.

Beste bi sententzietan dagokienez, Robert Heinrich Marie Mutsch eta Anita Groenner Sententzietan eztabaidan zegoena beste gai bat zen.

Mutsch Jaunak Luxenburgeko estatutasuna izanik, bere lantokia eta bizilekua Belgikako gune germanofonoan zituen. Bere ustez, gune germanofonoan bizi ziren biztanle belgiarren eskubide berbera zeukan prozedura penal batean alemaniera erabiltzera, baina belgiar gobernuaren ustez ez zen horrela. Auzitegiak arrazoia ematen dio Mutsch Jaunari eta ondorioz ondorengo adierazten du: estatutasunak ez dituela hiritar komunitarioen hizkuntza eskubideak baldintzatzen. Hiritar komunitario guztiak hizkuntza eskubide berdinak izango dituzte leku berdinean lan egin eta biziz gero.

Groenner Sententzian deman zegoena zera zen, ea irlandar gobernuak irlandar Errepublikako irakaskuntza publikoko irakasle izateko egiten duen gaelikoa ezagutzearen exigentzia bidezkoa den Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera edo, aldiz, langileen zirkulazio askearen aurkako neurri bat kontsidera daitekeen.

Luxenburgeko auzitegiak zera esan zuen, estatu kide batek egiten duen eskakizun linguistikoa, hizkuntza ofizial baten babeserako eta promoziorako politika baten barnean kokatzen bada, guztiz zilegi izango dela, nahiz eta lanpostu konkretu horretarako hizkuntza horren ezagutza beharrezkoa ez izan.

Sententzia hauek ikusiz zera ondoriozta daiteke Europako Justizia Auzitegiari dagokionean: hizkuntza ez dela Europar Batasunaren ardurapeko gaia, baldin eta hizkuntza ez bada Europar Batasuneko zutabe diren politika eta askatasun ekonomikoen bidean gurutzatzen, alegia, hizkuntza eskubideen babes bila nekez joan gaitzkeela Europako Justizia Auzitegira.

Noski, baieztapen hau soilik Justizia Auzitegiari zuzendua dago, ez Europar Batasuneko beste erakundeei, batez ere Europako Parlamentuari, zeinaren lana hizkuntza eskubideen babes bidean oso garrantzitsua den.

3.3. Kanadako Auzitegi Gorena eta Quebec-eko Auzitegi Probinzialak

Goazen interesgarriena den jurisprudentzia azkar-azkar aztertzea, Kanadako.

Sententzia hauek ikusiz zera ondoriozta daiteke Europako Justizia Auzitegiari dagokionean: hizkuntza ez dela Europar Batasunaren ardurapeko gaia, baldin eta hizkuntza ez bada Europar Batasuneko zutabe diren politika eta askatasun ekonomikoen bidean gurutzatzen, alegia, hizkuntza eskubideen babes bila nekez joan gaitzkeela Europako Justizia Auzitegira.

kanadiarrek hizkuntza izateko eskubidea daukate, edozein hizkuntza sustatzeko eskubidea, mugarik gabe, eta inork ezin diezaieke hizkuntza hori kendu, beren hizkuntza eskubidea giza eskubide bat delako; baina beste gauza bat da hizkuntza zehatz bat izateko eta erabiltzeko eskubidea arlo zehatz batean, hori ez delarik kanadiar auzitegien ustez hain argi oinarrizko eskubide bat.

Sententzien aipamen zehatzak egin beharrea labor azalduko dizuet zein izan den auzitegi hauen jurisprudentziaren erroa hizkuntza eskubideen inguruan.

MacDonald eta Ford kasuetan Kanadako Auzitegi Gorenak zera esan zuen:

Hizkuntza eskubidea adierazpen askatasunaren barnean kokatzen den eskubidea dela eta eskubide honen atal nagusietariko bat osatzen duela; ondorioz, ezin daitekeela adierazpen askatasunaz hitz egin ezin badaiteke adierazpena zein hizkuntzatan egingo den erabaki. Bide batez, Auzitegi Gorenak zera gehitu zuen bi kasu hauetan: badirela zenbait hizkuntza eskubide gizabanakoez gain pertsona juridikoez ere eduki ditzaketanak.

Quebec-eko Auzitegi Probintzialak, ordea, hau esan zuen Devine eta Ford kasuetan: hizkuntza eskubidea ez dela adierazpen askatasunaren parte den eskubide bat, bere horretan hizkuntza eskubidea bera oinarrizko eskubide bat dela.

Esparru ofizialera gehiago gerturatuz, zera esan zuten Kanadako Auzitegi Gorenak eta Quebec-eko Auzitegi Probintzialak banatu zaizuen zerrendan agertzen diren sententzietan: hizkuntza eskubideetan lehen mailako bereizketa bat egin behar dela: batetik, hizkuntza eskubidea oro har hartuta, zeina eskubide unibertsala den, eta bestetik hizkuntza zehatz baten eskubidea, zeina oinarrizkoa izan daitekeen ala ez.

Gure kasuari lotuz, kanadiarrek hizkuntza izateko eskubidea daukate, edozein hizkuntza sustatzeko eskubidea, mugarik gabe, eta inork ezin diezaieke hizkuntza hori kendu, beren hizkuntza eskubidea giza eskubide bat delako; baina beste gauza bat da hizkuntza zehatz bat izateko eta erabiltzeko eskubidea arlo zehatz batean, hori ez delarik kanadiar auzitegien ustez hain argi oinarrizko eskubide bat. MacDonald kasuan Auzitegi Gorenak esaten zuen moduan, arlo ofizialean frantsesa eta ingelesa erabiltzeko eskubidea ez da halabeharrez oinarrizko eskubidea; eskubide historiko bat bai agian, baina ez oinarrizkoa, eta ondorioz arlo zehatz batzuetan eskubide hori mugatua edo modulatu egon daiteke hizkuntza zehatz bat edo batzuekiko.

Bestalde, eta Quebec-eko alderdi nazionalistak hasiera batean beste interpretazio bat eman nahi bazion ere, auzitegiek hizkuntza eskubideak norbanakoen eskubideen artean kokatu dituzte, erabaki hau ez delarik inola ere nolanahikoa.

Ekar ditzagun aipaturiko epai hauek arlo judizialera eta ikus dezagun zer esan duten Kanadako Auzitegiek hizkuntza eskubideei buruz arlo judizialean.

Auzitegiek, eta 1867ko Lege konstituzionalaren 133. artikuluan oinarriturik, zera esan zuten: auzitegieta jotzen dutenek frantsesa zein ingelesa erabiltzeko eskubidea izango dutela, beren aukerakoa delarik bata ala bestea erabiltzea. Baina hizkuntza eskubide hori epaileak ere badu,

beraz, epaileek ez daukate zertan auziperatuaren aukera linguistikoa errespetatu beharrik eta ondorioz edozein hizkuntzatan erantzun diezaioke auziperatuari. Hala ere, MacDonald eta Bilodeau kasuetan Auzitegi Gorenak hau esan zuen: auziperatuaren aukera linguistikoak eskakizun bat suposatzen duela auzitegiarentzat eta ondorioz auzitegiak aukeraketa linguistiko hori errespetatzearren neurriak hartu beharko dituela auziperatuaren hizkuntzan erantzuna izan dadin, neurri horietariko bat itzulpengintza sistema delarik auzitegiaren beraren esanetan.

Are gehiago, ulermenari dagokionean, hau da, auziperatuak erabiltzen duen hizkuntza ulertzeari dagokionean, zera esan zuen Auzitegi Gorenak Société des Acadiens kasuan: auziperatuaren hizkuntza aukeratzeko eskubideak ez duela suposatzen ulertua izateko eskubidea, edo ez behintzat zuzenean ulertua izateko hizkuntza eskubidea.

Ulertua izateko eskubidea Karta Kanadienseak 11 b) artikuluan jasotzen duen babes judizial efektiborako eskubidearen barnean kokatua egongo litzatekeela, beraz edonork daukan eskubidea, ez bakarrik frankofonoek eta anglofonoek, eta ondorioz ez dela hizkuntza jakin bat erabili eta hizkuntza jakin horretan ulertua izateko eskubide linguistikoa, baizik eskubide orokor bat, auziperatuak auzitegi barnean zer gertatzen den jakiteko daukan eskubidea eta bere alegazioak ulertuak izan daitezkeen daukan eskubidea, interpretazio sistemaren bitartez babes daitekeen eskubidea beraz, Société des Acadiens epaiak berak dioen moduan.

Amaitzeko, Société des Acadiens epai honek adierazten duena ondorengo da: auziperatuak hizkuntza frantsesa ala ingelesa erabiltzeko daukan eskubidea babesten duten xedapen konstituzionalek ez dutela zuzenean ulertua izateko eskubidea ere babesten, beraz ez dituztela epaileak elebidunak izatera derrigortzen.

Arazo konstituzional hauek, ordea, modu desberdinetan izan dira konponduak arau zein xedapen administratiboen bidez, eta gaur egun ulertua izateko eskubide hori bermatua dagoela esan daiteke, baina argi esan daiteke eskubide hori ez dela konstituziotik eratorritako eskubide bat ere; xedapen legislatiboek, administrazio inplikatuak eta epaileek eman diote bide eskubide horri.

Hau hobeto azaltzeko orduak beharko nituzke, baina denbora eta interesa dituenari ahaniz eta interesa aurresuposa daitekeen gaurko eguraldiarekin hemen zaudetenon artean, Jose Woehrling irakasle quebec-tarraren testu baten irakurketa gomendatuko nioke, Kanadako Epaitegietan urteetan emaniko sententziak aztertu eta “bilingüismo judicial” deituriko affaire honi buruzko datu pila ematen duelako.

4. ONDORIOAK

Hizkuntza eskubidea edo lehen aipatu dugun hizkuntza bat izateko eta mantentzeko eskubidea, nabarmenki giza eskubide bat da; edonork dau-

Auzitegi Gorenak hau esan zuen: auziperatuaren aukera linguistikoak eskakizun bat suposatzen duela auzitegiarentzat eta ondorioz auzitegiak aukeraketa linguistiko hori errespetatzearren neurriak hartu beharko dituela auziperatuaren hizkuntzan erantzuna izan dadin, neurri horietariko bat itzulpengintza sistema delarik auzitegiaren beraren esanetan.

Hizkuntza zehatz baten eskubideak, ordea, giza eskubidea ez delarik eta oinarrizko eskubidea ere nekez delarik, gune eta arlo konkretuetan zentratutako neurri zehatzak behar ditu, batez ere arlo ofizialean.

Hizkuntza zehatz bat erabiltzeko eskubidea arlo horietan inposatuko duen eta bermatuko duen benetako arau sistema zehatza behar du.

ka hizkuntza bat edukitzeko eskubidea eta eskubide hau ez da neurri zehatzak behar dituen eskubide bat ikuspuntu juridiko batetik. Eskubide honek, batez ere desagertzeaz dauden hizkuntzetan, sustapen neurri energikoak eta erabiltzeko eremuak behar ditu.

Hizkuntza zehatz baten eskubideak, ordea, giza eskubidea ez delarik eta oinarrizko eskubidea ere nekez delarik, gune eta arlo konkretuetan zentratutako neurri zehatzak behar ditu, batez ere arlo ofizialean. Hizkuntza zehatz bat erabiltzeko eskubidea arlo horietan inposatuko duen eta bermatuko duen benetako arau sistema zehatza behar du.

Babes jurisdikzionalari dagokionean, ikusi dugu gaur eta hemen ez dagoela hizkuntza eskubideen babesik ematen duen nazioarteko auzitegirik. Agian, Eurokarta berretsiko balitz edo Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren parte izatera pasatuko balitz, orduan beste gauza bat esateko gai izango nintzateke, baina orain, hizkuntza eskubideen babes jurisdikzionalak momentuz ez dauka inora jotzerik.■

L A B U R P E N A
G A I A K

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN LEGE ESTATUSA

Xabier Iriondo

Gakoak: Europa, Espainia, Euskal Herria, jurilinguistika

Artikulu honetan Xabier Iriondok izenburu berarekin Leioako Udalak antolatutako jardunaldietan azaldutakoak bildu ditu. Azken urteotan hizkuntza eskubidearen kontzeptua hitzetik hortzera dabil Europan eta Euskal Herrian. Zer da, ordea, eskubide hori, eskubide orok behar duen lege aitortzarik ba al du? Iriondoren lanak hizkuntza eskubideen lege estatusak dituen hutsuneak aztertzen ditu. Hizkuntzei buruzko legediak aztertzen jarrita zein da egoera egun mundu mailan, Europan, Frantzian eta Espainian eta Autonomia Erkidegoan? Atalez atal, zorrotasun handiz Iriondok agerian uzten du egun nazioarteko legediek hizkuntza gutxituen eskubideak behar bezala defendatzeko dituzten hutsuneak eta Espainiako kasuan nola legea bera den, eskubidea onartu arren, erabilera mugatzen duena. Artikulu hau indarreango legedia eta araudi nagusien azterketa zorrotza da, hitz lauz egina eta gaien aditua izan gabe hizkuntza eskubideen lege estatusak babes eraginkorra emateko dituen hutsuneak ezagutzeko egokia.